

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1992ko uztailak 17, 158. zenbakia

ARKOk argitaratua Udalaren laguntzarekin




**ARANTXA  
ALBISUA**

Eguzkia hartzearen  
alde onak eta  
txarrak



# Sokorristak, laguntzeko gertu



A R R A S A T E  
K I R O L A K

Kontzeziño, 8 ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12



# 1.000

bazkide, mila, gura zituen Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak eta zuen erantzun ezin hobeari esker, bide horretan jarriak gaude, zeren 620 bazkide izatetik 1.000 izatera igaroko gara. Esanguratsua benetan Arrasate bezalako herri batean, 1.000 lagun izatea euskararen aldeko lanean, modu batean edo bestean, eragile izateko prest daudenak. Bazkide berri zareten guztioi ongi etorririk beroena eta, nola ez, mila

# ESKER

hartu duzuen erabakiagatik. Gure aurrekoak izan zirelako gara gu euskaldun eta gure ondorengoak ere euskaldun izan daitezten nahi dugu lana egin eta euskaldun izan. Zuek ere horrela ulertu duzue eta horregatik egin zarete AEDko bazkide. Inoiz baino gogo eta adore handiagorekin segituko dugu lanean, gure herritar guztiek, askatasun osoz, euskara guztiona berreskura dezaten eta harro senti daitezten euskaradun izateaz. Horrek etengabeko lana eskatuko digu, baina orain hilabete baino egoera hobean gaude gaur. Aurrera egingo dugu. Esker mila zuri,

# ARRASATE

**AED** ELKARTEA

**BAZKIDE IZAN NAHI DUT**

Izen-deiturak .....

Helbidea .....

Etxeko telefonoa .....

Moztu papertxo hau eta helbide honetara bidali:  
AED, Pablo Uranga, 4 etxabea. 20.500 ARRASATE, edo 79 54 46 tfnora. deitu.



# ARRASATE PRESS

## ASTEKARIA

### Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED  
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

### Laguntzailea:

Arrasateko Udala

### Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

### Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon

### Maketazioa:

Goio Arana

### Publizitatea:

Kepa Oliden  
Tfnoa: 77 08 15

### Kontabilitatea:

Agurtzane Gaintzarain

### Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier  
Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta  
Iñaki Mendiguren

### Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarieta, Arantxa  
Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi,  
Joseba Vallés, Karmelo Urizarren, Hankamotz,  
Atalaitaioan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon  
Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-  
Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon  
Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan  
Bautista Agorria, Leintz Bertsoeskola.

### Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

### Banaketa arduraduna:

J. Ozaeta

### Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 6.300 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian  
adierazitako esanen eta erizien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo  
Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan  
egiten da.

# Arimaz ahazturik

**B**atzuetan galdetzen diot neure buruari zer egiten ari garen mundu honetan, pena merezi ote duen horrenbeste lan, buruhauste, ardura...

Jaiotzen garenetik kate batetik lotuta goaz, guri **progresoa** deitutakarena egokitu zaigu eta katea diot, bai, betidanik arau eta neurriak izan bait dira gizakiaren eskutik gizakia bera mugatzeko eta menperatzeko. Gizaldi bakoitzak bizitzeko egokitu zaion ingurune eta zirkunstantzietatik **elikatu** behar izan du, eta arautu eta baimendutik kanpo jokatzeko erabaki dutenek, zapalduak, zorotzat joak, baztertuak edo desagertaraziak izan dira, akaso geroago **aldareetara** jasoka izateko, beranduago agian berriro boteak izateko. Historia hortxe dago idatzia eta aurreko hau baieztatzeko ez da oso atzera jo behar; halere eskenategia aldatuz eta bitartekoak bilakatuz doazen arren, gertakariak errepikatu egiten dira: gizakiak gizakiaren kontra darrai.

Txikitandik hasten dugu bizitzaren

lasterketa handian irabazle izateko trebaketa, beti goreneko maila izanik lortu beharreko helburua, bidean sekula atzera begiratu gabe... Eta honek neurritz kanpokoa eta esajeratua badirudi ere, gure bizitzari buruzko hausnarketa txiki bat egitea besterik ez dugu behar: ezertarako astirik gabe bizi gara, beti zerbait lortu nahian: etxea, kotxea, lan hobeak, bitxiak, bidaiak, hau eta bestea ... zerrenda bukaezina eta, bost axola aldamenekoa beharrean badago. Eta lortzen dugunean, zer? Benetan zoriontsuak sentitzen gara? Lortzen dugu benetako poza? Zoriontasuna, zein hitz ederra, zer da hori? Pertsona materiala asetzen dihardugu bizitza osoa eta, baina materialiaz gain beste zerbaitez osatzen da pertsona, sentimentuz, barneko zirrara berezi horretaz: **arimaz**, hitza bera soilik ulertuz inolako kutsurik gabe.

Ez ote dugu gure **arima** larregi baztertu eta ahaztu?

Ez ote gaude urre gorriaren dizdiraz itsuturik?

IHINTZ

# Memesa 79 42 22



## Zatoz gure gazte moda ezagutzera

Italora Lizentziatua, 5  
Tfnoa: 77 00 81  
ARRASATE





**gili gili**

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



**DANKAIRT**

Estetika eta fleapaintzaile  
Eskola  
M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.  
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

**MUSAKOLA**  
**OSTATUA**

Taberna  
Jatetxea  
Bazkariak  
Bodak  
Banketeak  
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g  
Tfnoa: 79 20 50

**ASA taldeari desafioa**

Karta honen bidez ASA taldeko "sasiargazkilarioi" Besaide Mendizale Elkartek desafioa bota nahi dizue.

Desafioa bizikletaz izango da, errekorridoa Arrasate - Kurtzeta izanik.

Talde bakoitzeko nahi hainbat partaidek hartu ahal izango dute parte, baina lehenengo seirak (zuentzat askotxo ez ote den izango...) bakarrik puntuatuko dute.

Proposaturiko eguna eta zuei entrenatzeko denbora ematearren, irailak 19a izango da arratsaldeko Setan.

Beraz "asaburuok" utzi errebeldorea eta fijadorea alde batera eta olioia eskuan hartuta txirringa engrasatzera.

Bueno, besterik gabe, erantzuna itxaroaz, agur bero bat Besaide M. E. aren partez.

Ah! ahaztu baino lehen, galtzen duen taldeak gaueko afaria ordaindu beharko du.

BESAIDE MENDIZALE ELKARTEA

**Pakearen Ibilaldia**

Badakigu adinez helduak garenok, Francoren garaian boterean ematen zigun ondasun bitxiene pakea zela. Ehun, milaka hildakoetan, terrorean eta solidaritatean oinarritutako pakea pazifikazioarekin identifikatuz. Badakigu, betidanik, sarraski eta herrien bortxaketaren bitartez gauzatutako inperioek, bakea pazifikazioaz

identifikaturik, "domeinua" mantentzeko erabili dutela. Badakigu "Gesto por la paz"-eko kideek pakearen izenean daramaten ibilaldian, pazifikazioaren erresuma aldarrikatu dutela. Baina pazifikazioa ez da pakea, baizik eta zapaltzaileak, indarkeriaren bitartez ezarritako ordena. Eta bi buruko herensugea bezala, pazifikazioak iraun dezan "trankiltasuna" behar du: gizarte pazifikatu batean ondo bizi direnek (eta haien jopu direnek) duten jarrera indibidualista eta insolidarioa. Badakigu Francoren garaian ziren pazifikazioaren maitaleak eta orain direnak, sarritan pertsona fisiko berberak direla. Pazifikazioaren maitaleek esistentziaren defentsa egiten dutenean, iraupen fisikoa edo esistentzia biologikoa bakarrik ikusten dute; gizakiok ditugun esistentzia sozio-kulturala (identitateari dagokiona) eta esistentzia sozio-psikologikoa (duintasunari dagokiona) ukatuz.

Pazifikazioaren maitaleek biziaren iharduten dutenean, iraun bizitza soilik onartzen dute, duintasun gabeko bizitza, esklabu baten esistentzia. Horrela, pazifikazioaren maitaleek biziaren defentsa egiten dutenean, heriotzarekin parekatu daitezkeen preso sakabanaketa, torturak, esplotakuntza eta bazterketa soziala, identitate sozio-kulturalaren ezabaketa..., hitz batean, heriotzaren zibilizazioa justifikatzen dute. Baina hori ez da pakea. Eskubide indibidual eta kolektiboetan oinarritutako ordena da pakea. Iraun-bizitzaren orde "elkar bizitza" (eskubideen usufuktuetan oinarritzen den bizitza) ziurtatzen diguna.

ANTXON MENDIZABAL

**ARAMAIO**  
**okindegia**

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46



Kontzezifio, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06




# Jubilatuentzat badago nahiko zerbitzu?



**Juli Bedia**

Ez dakit zer esan ere. Jubilatuak gehiago beharko lukete. Batzuk ondo daude baina beste batzuk ez, eta horientzat zerbait falta da.



**Pablo Zeziaga**

Nahiz eta hemengoan izan, Madrilen bizi naiz eta uste dut nahiko ondo atentiduta daudela. Lokala ona dute. Baina etxean dauden jubilatuak beste kontu bat dira.




**Pedro Otxoa**

Primeran gaude. Txarto gaudela esaten badut, seguruenik zerbait esango didate, horregatik norberaren iritzia norberak gordetzen du. Primeran gaude, primeran.




**Eusebia Biain**

Ni egoitzan nago eta atentitzen gaituzten neskek batzutan falta batzuk izaten dituzte, baina generalean nahiko ondo gaude.



**Dolores Aranburu**

Nire ustez nahiko ondo gaude, ni behintzat oso pozik nago dauzkagun zerbitzuekin.



**Blas Madinabeitia**

Ez dakit ba. Batzuk konforme gaude, beste batzuk ez, denetik dago. Ni, Jainkoari esker, konforme nago.



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



## BEHARREZKO TELEFONOAK

### ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

### GURUTZE GORRIA

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

### DYA

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

### ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

### ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazkiak .....	45 87 44
----------------------------------	----------

### UDALTAINGOAK

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

### ERTZAINZA

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

### SUHILTZAILAK

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

### MATXURAK

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

### GARRAIOAK

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

### HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

### KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55

### MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron .....	77 01 05
-----------------	----------



19

• • •

## IGANDEA

- Zinea: Alai: "Engañada" (5-7.30-10)
- Maala Errabaleko jaiak: Meza Nagusia San Frantzisko Eleizan, Maala Errabalean hildako guztien oroimenez, 12etan. Ondoren luntxa "Plus Ultra" tabernan auzoko jubilatuzt.
- Debara bizikleta martxa, talde ekologistek antolatuta, Portaloian irteera goizeko 9.30etan.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

20

• • •

## ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Engañada" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

21

• • •

## ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Engañada" (7-9.30)
- Jazz emanaldia: "Hotlanta" seikote amerikarrarekin, Monterronen gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

17

• • •

## OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Two Jakes" (7-9.30).
- "Igeriketa 12 orduz", Kiroldetik pizinan goizeko 8etan hasita.
- Antzerkia: "Sueño de una noche de verano", Ur taldearekin, Monterronen gaueko 10.30etan.
- Kontzertua Gaztetxean, Rabia taldearekin, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

18

• • •

## LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Engañada" (5-7.30-10)
- Zinea Monterronen: "El cuarto hombre", gaueko 10.30etan.
- 24 orduko futbito txapelketa, Iturripen eguerdiko 12etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erquin.

22

• • •

## ASTEAZKENA

- Maala Errabaleko jaiak: Goizeko 8etan etxafleroak, arratsaldeko 4etan umeen jolasak eta txokolatada, 7etan trikitalariak, 9etan auzo-afaria, 10.30etan dantzaldia eta 11etan suzko errubarak.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erquin.

23

• • •

## OSTEGUNA

- Folklore emanaldia: "Metallurg" talde ukrainarrarekin, Monterronen gaueko 10.30etan.
- Ezohizko asanblada orokorra Coprecin.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.



## Deialdiak

### • Debara XIV. bizikleta martxa

Azken hamahiru urteotan egin den bezala, igandean eta bailadako Eguzki, Eki, Amilox eta Mendia Bizirik ekologista taldeek antolatuta, Debara XIV. bizikleta martxa burutuko da. Martxa honen bidez, Deba ibai bizia aldarrikatu nahi da. Martxan bailadako herri guztietako jendea izango da eta Arrasaten irteera goizeko 9.30etan izango da, aurrez 9etan Eskoriatzan eta 9.15etan Aretxabaletan.

### • Bekak

Bergarako Udalak Justo Garate Arriolaren omenez ikerketa beka bat sortu du. Beka euskaraz burutuko da eta iraupena 11 hilabetekoa izango da. Diru kopurua 935.000 pezetakoa izango da eta hartzaileak 35 urte baino gutxiago izan beharko ditu. Norbanako edo lantaldeek jaso dezake eta ezinbestekoa da Diplomatu edo maila bereko titulua izatea. Informazio gehiago lortzeko Bergarako Udal Kultur Zerbitzura jo dezakezue.

### • 61eko kintoak

Aretxabaletako 61. urteko kintoek afaria egingo dute hilaren 18an. Arratsaldeko 7.30etan meza hildako kintoen oroimenez, jarraian txikiteoari hasiera emango zaio eta 9.30ak aldera Gurea jatetxean afaria. Izena emateko Gurea tabernara zuzendu.

## Jaiak

### • Kontzertua

Bihar larunbata gaueko 10.30etan rock kontzertua izango da Gaztetxean. Talde gonbidatua Bilboko *Rabia* taldea izango da eta sarrerak 300 pezeta balioko du. Bertatik esan



## Maalako Errabaleko jaiak

### Auzo afaria ekintzarik aipagarriena

Maalako Errabaleko jaiak berez asteazkenean dira, baina igandean aurrerapen txiki bat izango dute. Izan ere, igandean eguerdiko 12etatik aurrera, San Frantzisko Elizan, auzoan hildako guztien aldeko meza izango da. Ondoren, "Plus Ultra" tabernan auzoko jubilatu guztientzat luntxa.

Aurrerapena alde batera, jaiak bete betean asteazkenean, hilak 22 hasiko da. Horren adierazgarri, goizean etxallero jaurtiketa, arratsaldeko 4etan umeentzako jolasak eta txokolatada ederra. Zazpirak aldera, txikiteoari hasiera emateko, trikitalariekin kalejirak eta 9ak inguruan auzotarrak afaltzeko bilduko dira. Horrelakoetan gertatzen denez, afalostean dantza ugari egiteko aukera nahi duten guztientzat, goizaldera arte; tartean, 11tan gutxi gorabehera suzko errubera ikusgarriak. Jai egun bakarra, baina ondo pasatu nahi duenarentzat aukera paregabea.

digutenez, *Barricada* zaleek seguruenik gustoko izango duzue talde hau ere.


### • Antzerkia

Gaur ostirala gaueko 10.30etan Ur antzerki taldeak "Udako gau batetako ametsa" obra antzeztuko du Monterronen. W. Shakespeareen obra hau ikusteko 500 pezetako sarrera ordaindu beharko da.

### • Zinea Monterronen

Pasa den astean bezala, larunbat honetan pelikula bat izango da Monterronen. Aldi

honetan "El cuarto hombre" izeneko filmea. Sarrera doan izango da.




## Nafarroa Oinez

### • Materiale salmenta

Nafarroa Oinez, Nafarroako ikastolen aldeko ekitaldia urria arte burutuko ez bada ere, Biana aurtengoan, asteburu honetan materialaren salmenta egingo da Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasaten. Horretarako mahaiak jarriko dira aipatutako herrietan: Aretxabaletako Durana kalean larunbatean arratsaldeko 6etan, Eskoriatzako plazan igandean 12etatik aurrera, eta Arrasaten, Sebero Altube plazan, igandean arratsaldeko 6etatik aurrera.

Kamiseta, motxila, txano, txiskero eta abar eskuratu nahi dituenarentzat, beraz, aukera paregabea, ondorengo egunetan AEDn bertan ere izango dena, materiala elkartean bertan egongo da eta.



## Kirola

### • Txirrindua

Deba Garai Txirrindulari Elkartekoek asteburu honetako 102 kilometrotako ibilbidea antolatu dute: Arrasate - Arlaban - Legutio - Gopegi - Murgia - Oroko Andramaria - Gasteiz - Arrasate. Ibilbide polit horretan parte hartu nahi duten guztiek goizeko 9etarako Txirrindulari Elkartearen aurrean egotea besterik ez daukate, tren geltoki zaharrean.



“ Enpresa honen (Alecopen) berezitasuna, egun erdiz lan egiten duten 476 ikasle langile gisa izatea da eta horiek osatzen dute plantilaren zatirik handiena, 22 kontratatu eta 44 kooperatibistaz gain. Historian zehar 5.000 dira Alecopetik pasa diren ikasleak dagoneko”.

(Gloria Abanda kazetariak Diario Vascon. 1992-7-5)

“ Hizkuntz zapalkuntza, intsumisioa, euskal subiranotasunaren bahiketa, Madrilera bakezko mezua eraman nahi zutenei tiroz egindako ongietorria, eta azkenik, euskaldunei Herrien Europa eraikitzen aktiboki parte hartu ahal izan dezaten negoziazio politikoaren beharra gogora arazi zituen.

Prentsak autoinkulpazioa azpimarratu du, baina arazoaren gakoa ez dago Arkauzen etorkizun desegurrean, Arrasateko gazte honek, apal baina indarrez adierazitako eritzietan baizik”.

(Martin Garitanok Eginen. 1992-6-20)

“ Mila urte igarota ura bere bidean. Eibartarrak sendo dautsaz enbor zaharrari. Eta belaunaldi gazteok erakusten digute maite dutela eta jagon nahi dutela euren izate berezia. Eibarko euskara kaletarra. Antzeko joerak ikusten ditut Gipuzkoako bizkaieradun beste herri batzutan ere, hala nola Oñati eta Arrasate. Bizkaiko herrietan eurretan baino gogotsuago dihardutela dirudi euren txokoa jagon gurarik. Standarizazioaren uholdeak dena irentsi ez dezan ahaleginetan, etxeko berbakuneari aterbea egin nahirik.

(Adolfo Arejitak Euskaldunon Egunkarian. 1992-6-24)

Zergatik antolatu da Pakearen aldeko martxa?



Martxa hau ekainaren 19an hasi zen Bilbon eta uztaileko 19an bukatuko da bertan. Ezaugarri honetako martxa bat lehen aldiz antolatzen da eta aldi honetan Gernika Batzordeari esker izan da.

Pakea, gizarteko agente sozial guztien artean lortu daitekeen gauza dela uste dugu eta horregatik aukeratu dugu lema hori ere: “Askatasuna eta pakea”. Biak erlazionaturik daude guretzat, pakea lortu behar da baina askatasunaren barruan. Helburu horrekin, Euskal Herriko herri guztiak bisitatzea da gure asmoa. Batzutan bazkaltzen geratzen gara eta beste batzutan, Arrasaten bezala arratsaldeko ekitaldi batzuk burutu eta afaltzen.

Martxa hau hasi baino lehen jende askok parte hartzea espero genuen baina eguneguz aurretik eginiko pronostiko guztiak apurtzen doaz, jendearen partehartzea askoz ere handiagoa izan delako. Goizean 100 txirrundularirekin hasten bada, arratsalderako bikoiztu egiten da, pasatzen dugun herri bakoitzean gero eta txirrundulari gehiago biltzen direlako. Orain arte Nafarroa eta Erriberako herri guztietan ibili gara.

Antolatzaile taldeak izugarriko garrantzia du halako ekintzetan. Guztira, kamioilari eta beste arduradunen artean 20 gara eta ekintza bakoitzean oinarrizko antolaketa prestatzea tokatzen zaigu. Horretaz gain, herri bakoitzean bertako jendeak ere asko laguntzen digu.

ANTOLATZAILE  
TALDEA

Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

**AZAFATA, HARREMAN PUBLIKO eta TURISMO-GIA ESKOLA**

centers Pasajes de San Pedro, 1 GASTEIZ Tfnoa: 945 - **28 35 34**

**Ford**

**AMETS TAILERRAK**

HERGO karabanen banatzailea

**SALMENTA ETA ALOKAIURIA**

- Karabanak
- Autokarabanak
- Mota guztietako erremolkeak
- Urte osoan karabanak aterpean gordetzen ditugu

Berezano auzoa. OÑATI  
Tfnoa: 78 25 92 / 78 19 50




## Eskoriatza

### • Eskoriatzako gida

Herriko eliza, eliz atariak eta bestelako eraikuntza inportante guztien gida berri bat argitaratu da Eskoriatzan. Era berean herriko historia zehazten da eta izan ziren etapa desberdinak ere bereizten dira. Denbora gutxi barru salgai izango da.

### • Zinea Plazan

Iaz bezala Eskoriatzako Udalak zine emanaldiak antolatu ditu, Herriko Plazan izango dira, ostegun eta larunbatetan. Eguraldiak laguntzen duen egunetan, denbora oneko egunetan Don Pedro plazan izango dira.



## Aramaio

### Aixolako jaiak

Asteburu honetan ospatzen dira Aixola auzoko jaiak. Larunbatean hasiko dira, 12etan kanpai hots eta etxafleroen jaurtitzearekin. Ondoren 12.30etan Meza izango da eta gero txirindulari lasterketa, Zabale Anaien bermouth dantza. Arratsaldean, auzo kirolak izango dira 7etan. Eta gauez *Kaixo* taldearekin erromeria izango da. Igandean meza ondoren dantzaldia eta arratsaldean umeen jolasak eta azkenik 8.30etan jaiei amaiera ematea.

## Oñati

### • Dantza jaialdia

Bihar larunbata gaueko 10.30etan eta Zubikoa frontoian dantza jaialdia ospatuko da. Bertan bi taldek hartuko dute parte: Mejikoko

dantza folkloriko talde nazionala eta Oñatz dantza taldea. Sarrerak 500 pezeta balioko dute. Hala ere, gazte txartelarekin, 300 pezeta. Talde hauek ezagutzen dituztenek esan digutenez, merezi du jaialdia ikusi eta entzutea.

## Antzuola

### • Piedadeko jaiak

Atzo hasi ziren Antzuolan herriko jaiak. Bertara joan nahi duzuenok baduzue aukera oraindik. Gaur ostirala, gazteen eguna da eta antolatutako ekintzen artean mendi-bizikletako froga, pintura erakusketa, bola jokua, herri-krossa eta umeen tamborrada eta *Gaubela* taldearekin izango den dantzaldia dira aipagarrienak. Larunbatean 10etan hasiko dira ekintzak txistularien kalejirarekin. Ondoren kalejira, duatloi txikia, Bergarako musika Bandaren kontzertua, herriko dantza taldearen ekitaldia eguerdian, arratsaldeko 6etan *Mairuaren* agertaldia, dantzak eta gauez pilota partidua eta *Beleak* taldearekin dantzaldia.



## Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN  
SORKUNTZA  
LORAZAINTZAKO  
MANTENIMENDUA ORO HAR  
LANDARE-BIRSORKUNTZA  
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)



**ARRASATE PRESS**  
Azoka kalea, 1  
20.500 ARRASATE  
(GIPUZKOA)

# **UDAKO POSTAL LEHIAKETA**


Guk ere jakin nahi dugu zure oporren berri! Zauden lekuan zaudela, idatzi postal bat ARRASATE PRESSera eta BLAGUNENTZAKO AFARI EDER BAT irabazi dezakezu.

Postalik saltsero, sinpatiko, humoretsu eta atseginena saritu nahi dugu.

Bidali lehenbait lehen, taldeka, familia guztiaren izenean edo bakarka, eta... zorte on!

**ARRASATE PRESS**





Besaide isurtegiara daraman bidea

## Lindanea Besaide isurtegiarian?

### Ezker Batuak Udalari hainbat eskakizun egin dizkio

Euskal Herrian aurkitu diren lindane pestizidaren 30 isurtegiarik bat Besaide isurtegi pribatua da *El Mundo* egunkariak eta Ihobe enpresa publikoak esandakoaren arabera, Gipuzkoan da goen bakarra.

Lindanearen ikerketa egiten ari dena Ihobe enpresa publikoa da, eta bere zuzendariak, Raul Fernandezek adierazi digunez, ez dakite zehaztasunez Besaide isurtegiarian zenbat lindane dagoen. "Zaila da jakitea zenbat lindane dagoen, isurketak legez kanpo egin dira eta gainera beste hondakinez estalita dago. Isurtegiak 30.000 metro karratu ditu eta ez dakigu hor dagoen lindaneaz zer egin ahal izango dugun. Orokorrean, isurtegi guztietatik lindanea atera eta eliminazio tratamendua emateko asmoa dugu".

Isurtegiaren jabeek diotenez isurtegiarian dagoeneko ez omen dago lindaneri, "bere garaian zegoena atera zen

eta. Gainera, orduan Jaurlaritzak eskatuta sartu genuen, gero ekarri zizkigun arazoak ekarriko zizkigula jakin izan bagenu ez genien inolaz ere sartzen utziko. Hemengo lindanea atera genuen, Udaletxeko jendearen aurrean gainera".

Bestalde, Xabier Zubizarretak, adierazi digunez 1987-88 urteetan Besaide isurtegiarian zegoen lindanea atera eta sortu zen tokira eramán zen, Dow Chemical lantegira. "Hala ere —esan zuen— posible da baztarren baten zerbaít gelditzea".

*El Mundo* egunkaria eta Ihoberen azalpenen ondoren Arrasateko Ezker Batuak, herritarrei informazioa ematea, isurtegiaren ondoko ortuen ikerketa egin, prebentzio plan bat martxan jarri eta lindanea biltzea eskatu dio Udalari.

Lindanea produktu toxikoa da, denborarekin bere ezaugarriak galtzen ez dituen, duen abantaila bakarra uretan oso disolbagarria ez izatea litzateke.

## Usteak uste

**J**oan berri dugu ekaina, eta beronekin batera San Juanak. Baina ez San Juanak bakarrik, baita ikasturte bukaera ere, eta honek azterketak edo ebaluaketak esan nahi du, hau da, notak.

Berriz ere errepikatuko ziren bronkak eta zigorrak. Eta egia da inoiz baino gehiago entzuten dela "hezkuntza integrala", baina ez dakit nik zenbateraino gurasook barneratzen dugun honek suposatzen duena, azken finean ez al dira notak gehien axola zaiguna? Oker ez banago matematikakoak batez ere).

Garbi dago gizartea kompetitiboa dela, baina kompetitiboa izaten guk ere laguntzen dugu, eta kompetentzia zentzua umeengan sartzen dugu inolako erreparorik gabe.

Betik esan ohi da gurasoek euren umeak politak eta azkarrak izatea nahi dutela, oso nahi logikoa gainera, baina ez badira ez dira, beste alde on batzua izango dituzte. Dena den, gaur egun, ez bakarrik politak eta azkarrak, baizik eta politenak eta azkarrenak izan behar dira, eta noski, denak ezin izan politenak eta azkarrenak, eta hau onartu beharra dugu. Baina ez dugu onartuko aurretik gizarteak ezarritako baloreak birplanteatzen ez baditugu. Erraza da hezkuntza sistemari errua lepiratzea, zati bat ere izango du, baina norberaren bizitzan zenbat saiatzen garen horri aurre egiten ere aztertu beharko genuke, eta gauza bakoitzari neurria hartu eta bere lekua eman. Notak garrantzitsuak izango dira, baina pertsona baten heziketan ez al dago notak baino gauza garrantzitsuagorik? Pentsatzen jartzen bagara, bat baino gehiago aurkituko dugu.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

**URONDO**  
elektrizitatea



Kataide Industrialdea 5. Pabiloia,  
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76 ARRASATE

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak



**SAMEGO**  
GARBIKETAK

Uriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39



**□ Pedro Guridi Murtziara**

Pedro Guridi "Pedrotxo", Kanariar Irletako Salto del Negroko espetxetik Murtziako espetxera eraman dute. Dirudenez, espetxe aldaketa joan den astean izan zen.

**□ "Askatasuna eta bakea" martxa**

Gernika Batzordeak antolatuta Euskal Herrian zehar burutzen ari den "Askatasuna eta bakea" martxa pasa den astelehenean iritsi zen Arrasatera. Ehundaka lagun bildu zituen martxak arratsaldeko 7.30etarako. Kalean jaigiroko ekitaldiak burutu ziren eta ondoren herri-afaria Herriko Plazan.

**□ Mendizale baten erreskatea**

Mateo Larrañaga hogeitamar urte-tako osintxuarrak orkatila bihurritu zuen eta oinez ibili ezinik geratu zen Aizkorrri jaisterakoan. Ertzaina helikopteroaz baliatu zen osintxuarra Eroski aurrera ekartzeko, Eskualde Ospitalera eraman zuen anbulantzia hantxe zegoen zai eta.

**□ Gaur Udal Plenoa**

Arratsaldeko zazprietatik aurrera hamazortzi puntuz osatutako Udal Plenoa burutuko da. AUKEAko zuzendaritza batzordearen aukeraketa, San Kristobalگو kanposantoko barne-araudiaren onarpena, Gizarte-Zerbitzuei buruzko hitzarmena Diputazioarekin eta EUEak Uherkapen frontoirik ez egiteko eskatuz aurkeztuko duen mozioa izango lirakeke gairik interesgarrienak.



Prentsaurrekoa asteazken eguerdian burutu zen

## M.C.C.k balantze positiboa

*752.841 milioitako aktiboa lortu du aurten*

Asteazkenean "Mondragon Gorpuzazio Kooperatiba" k urteko bilera burutu zuen. Bideo baten bidez barne antolakuntza eta atal bakoitzaren funtzionamendua azaldu ondoren, prentsaurrekoa egin zen. Bertan, Javier Mongelos, kontseilu nagusiko presidentea, Juan Mari Otaegi, finantza taldekoa, Jesus Maiztegi, industria taldekoa eta Antonio Cancelo izan ziren, banatzaile taldekoa, bakoitza bere atala aztertzen.

Orokorrean 1991ko abenduaren 31an 752.841ko aktiboarekin amaitu zuen urtea Korporazioak. Horren barruan hiru atal desberdintzen dira: fi-

natziera, Industrial eta Banatzailea. Finantziera ekonomiko gehikuntza izan du, industrialak nazioan izan den krisiaren eragin nabaria ezagutu ditu eta banatzaileak Espainia eta Frantziako hegoalderantz hasitako zabalkundea jarraitu du.

Arlo Finantziera Lan Kide Aurrerkiak eta Lagun Arok eta banatzailean Eroskik izan duen urtea aztertu zuten, orokorki oso ona izan dena.

Industri sailean, autoentzako materiala, etxeko tresnak, denbora libre eta kirolarekin erlazionatutako gaiak azpimarratu ziren garrantzitsuen bezala.



Araba Etor., 4  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 01 32

Koop. E.

Olakua, 14  
OÑATI  
Tfnoa: 71 60 00

### 92-93 IKASTURTEA

**ALEMANA FRANTSESA INGELESA**

**Matrikula irekita  
Hurbil zaitez gure bulegoetara.**

Arrasaten 9etatik 1etara  
4 etatik 8etara

Oñatin 4etatik 8etara



**ileapaindegia**

Tfnoa: 79 37 88  
Arrasate



Izen  
**PROPIOAK**



Pasa den ostiralean **210 jubilatuk eskurtsioa izan zuten**. Goizez Lizarran egon ondoren, bazkaltzera Iratxera joan ziren. Ondoren Estibalizen izan ziren. Argazkian ikusten denez, bazkaltzeko orduan ondo pasatu eta giro ezin hobean izan ziren.



◀ Pasa den ostiralean **San Kristobal** eguna ospatu zen eta nola ez, gidariek ez zuten ahaztu ohitura den bezala euren zaindariari lorak eskaintzea. Kamioi gidari hau ere lora sorta bat jartzen harrapatu genuen.

● **Rafa Axpe**, aramaixoarrak, kostata izan bada ere, Bartzelonako Joko Olimpikoetan tiro olimpiko modalitatean parte hartzeko txartela lortu du. Rafa 1981. urtean hasi zen tiro lehiaketetan eta ordutik txapelketa ugari irabazi du, baita munduko txapelketetan parte hartu ere.

● Datorren denboraldirako Donostiako Errealak **Urtzi Amiano, Lazaro Olivenza** eta **Argider Arana** arrasatearrak fitxatu ditu.

● **Jasone Diaz de Gereñu**, 25 urteko eskortzarra fitxatu du Corteblando Bidebieta, eskubaloiko lehen mailako ekipoak datorren denboraldirako atezain. Orain arte Hernaniko ekipoko jokalaria izan den neska hau ATBn izan genuen lanean.

**FAGOR**



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

**LORATEGI**

taberna

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67

**J. M. Heriz**

Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak

Olarte, 30 Tfnoa: 79 77 11. ARRASATE





**AEDk bixera berri bat atera du.** Udalekuak direla aprobetxatuz argazkian duzuen bizera eder hori kalean duzue jadanik. Ez orain arte Udalekuetan ibili direnek bero handiegia izan dutelako, baina seguruenik mutiko asko halako bixera bat lortu nahian ibiliko da.

**Kepa Altube, "Kopi",** eta **Igone Kazalis** txalaparta hartu eta Italiako Torinon izan ziren, "Differenti sensazioni" izeneko arte jaialdian, Beatriz Silva artista bilbotarraren ikuskizunean parte hartzeko. Arrasatearren lanak ez zuen ikusle gehiegi izan, baina agertu zirenek txaloz hartu zuten txalapartaz osatutako ikuskizuna.



Epelde

**Luis Zeziaga** eta **Idoia Bengoa** ekainaren 13an ezkondu ziren. Ezkon bidaian Bali eta Indonesia inguruak bisitatu zituzten. Zorionak!


**Monte  
taberna**

Maalako errabala, 11 Tfnoa: 79 20 56

**URRATS**  
AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tfnoa: 79 87 74 ARRASATE

**Elektroinjekzio  
Zerbitzua**



**ARRASATE  
KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5  
Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE

**ENARA**  
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala, 21  
Tfnoa: 79 62 32  
20500 Arrasate



**HUETO Doktorea**

**Eztarria, sudurra,  
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11  
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



## RENAULT 21 BERRIA

*Broker*


120 CVko potentzia. Aire girotua. Lechioak altxatzeko automatikoa atzean eta aurrean. Barruko ordenadorea. Soinu ekipoa bere agintearekin bolantean. Aleaziozko kurpil-hagun edo llantak. Dena seriekoa. Eta 2.455.000 PTAREN truke\*.

***Bada garaia atseginean inbertitzeko.***

**Gorbata duzu aukeran.  
Gainerako guztia seriekoa.**



\* Prezioa penintsulan eta Balearetan. B.E.Z. eta garraioa barme.



**RENAULT**

Zatoz ikustera:

**MECA, S.A.**

Araba Etorbidea z/g 20.500 ARRASATE



# MUGA GUZTIEN GAINETIK

**LABURPENA:**  
Xantik, Mireren senarrak, istri-  
pua izan du. Albertok, Miren  
kontrolatu nahi izan du eta  
azkenik ohean amaitu dute...

**3.**  
**atala**




Barkatu Miren, ezin izan dut nire burua kontrolatu.

Ez esan txorakeriarik. Nik nahi izan ez banu ez zen ezer gertatuko.



Orduan?

Bada, hori. Nik ere oso gustoko zaitudala, besterik ez.



Beraz, maite nauzu?

Hori ikusi egin behar da. Ikusteko aukerarik ematen badidazu behintzat.



Bai, noski! Badakizu maite zaitudala!


**HORRELA SENTIMENDUA JAIO BERRIEN GOZOTASUNA DISFRUTATZERARI EKIN DIOTE, ELKARRIZKETA LUZEAK...**

**PASIERA LUZEAK...**



Eta nire gurasoekin bizi izan naiz orain arte. Egoera hau guztiz berria da niretzat.

Ume mukizua!



Paraje ederrak, ederragoak dira zurekin...

Kursi halakoa!



BAINA, AMAIGABEA ZIRUDIEN ZORIONA, BAPATEAN ETEN EGIN DA. XANTI SENDATU EGIN DA ETA OSPITALETIK ITZULI.



Xanti! Ongi etorria bizien artera!

Kaixo, Alberto!

XANTIREN ITZULERAK OHARKABEAN HARRAPATU DU ALBERTO. MAITEMINDURIK EGOTEAK ERREALITATEK URRUNDU EGIN DU.



Xanti egunero ikusiz, ezingo dut egoera hau jasan. Miren ikusteari utzi egin beharko diot. Hobe izango da!

MIRENI EZ DIO EZER ESAN NAHI, ZERTARAKO?




Miren maitea!

Hain hurbil eta hain urrun!



LAGUN BERRIEN BILA HASTEN DA...



Kaixo, nire zai...


Trankil, hau Patxi da.

MENDIRA IRTETEN...






OSTIRALA DA. KOADRILA BERRIAREKIN AFALDU ETA HIRIRAINO HURBILDU DIRA. FARRANDA EGITEKO ASMOZ...




XANTI DA. URRUTI DAGO ETA BERAK EZ DU ALBERTO IKUSI. BAINA, ALBERTOREN SORPRESA EZ DATZA XANTI IKUSTEAN...



Mutil batekin dago.

BAPATEAN, GOIZEKO ORDU TXIKIETAN INOIZ PENTSATUKO EZ ZUENA IKUSTEN DU.



Ez, baina...!

BAI, XANTI MUTIL BATEKIN DAGO, ETA BADIRUDI BIEN ARTEKO HARREMANA OSO HESTUA DELA...



OSO HESTUA!

HESTUA...



JARRAITUKO D



**U**da heldu dela eta, eguzkiak gure azalean duen eragina aztertze

Arantxa Albisua, estetikan aditua, izan zen Arrasaten Ekin emakume taldeak ekarrita. Gomendio eta kontutan hartzeak azaldu dizkigu.

— Jendeak uda aldean askoz gehiago zaintzen du bere gorputza, ezta?

— Bai, hala da, baina ez du horrela izan beharrik. Jende askok esaten dit, udan azala askoz hobeto izaten dutela eta normala da, askoz gehiago zaintzen dutelako. Egia da udan eguzkia dela eta, kontu gehiago izan behar dugula baina urtean zehar ere derrigorrezkoa da zaintzea, oinarrizko puntu batzuk kontutan hartu eta mantentzea, bai udan bai neguan.

— Zeintzuk dira oinarrizko puntu horiek?

— Batez ere eguneroko tratamendua. Hau da, esnearekin garbitu, gero tonikoa edo lozioa erabili, segun kasu bakiotza eta azkenik hidrantea edo nutritiba bat. Hau egunean bi alditan egitera ohitzen bagara, hobekuntza handiak igarriko ditugu azalean. Baina hori bai, tratamendua hasi baino lehen merezi du aditu batengana joatea, norberari dagokion tratamendua jartzeko.

— Orokorki zenbat azal mota daude?

— Mota asko, baina hirutan sailka daitezke: zuriak, normalak eta beltzak. Hau kontutan hartuz, denbora gehiagorik edo gutxiagorik har daitezke eguzkia. Arau orokor bezala, azal zuria 20 minuturekin hasi daiteke, normala 30 minuturekin eta beltza ordu betez. Protekzioa oso inportantea da, beti behar da

Arantxa Albisua

## Eguzkia hartzearen alde onak eta txarrak



krema babesle bat, nahiz eta aurretik ordu askotan eguzkitan egon.

— Azalarentzako ona ala txarra da eguzkia?

— Gauza biak. Ona da baina modu egokian hartzen badugu eta hori, oraindik ez dugu ikasi. Eguzkiak gauza on asko aportatzen dizkigu, bitaminak eta abar. Ikasi egin behar dugu kontu handiz hartzen, hori da inportanteena.

— Produktu batzuk zuk

egiten dituzu, zer motatakoak dira?

— Mota guztietakoak, baina batez ere azal bakoitzari bere tratamendua jartzendiogu. Adibidez azal zuriz guztiak ez dira berdinak, bakoitzak bere ezaugarri zehatzak dituelako, produktu mota bat dagokio bakoitzari. Horregatik osagarri desberdinak hartuz, mineralak edo nutrienteak, produktu desberdinak elaboratzen ditugu, azalaren arabera.

— Gauza hauek emakumearen kontuak dira bakoitzari?

— Hala ematen du, baina gure saloitik gero eta gizonetzko gehiago pasatzen da, solarium-era, depilatzerak eta abar. Nahiz eta gehienak 40-45 urtekoak izan, gazteak ere gero eta gehiago etortzen dira.

— Jaten eta edaten dugunak nolako eragina du azalean?

— Oso handia. Barruko funtzionamendua kanpoan ikusten da, esaten den bezala aurpegia arimaren izpila da. Nik gomendatuko nuke ur asko edatea eta barazki eta fruta asko jatea, gauza garbiak, azken finean.

— Zeintzuk dira gehien ezagutzen diren azaleko gaixotasunak?

— Kontutan izan behar da gaixotasun hauek nerbioengatik izaten direla gehienetan. Honek esan nahi du pozak, tristurak eta beste egoerak eragin handia dutela azalean. Guk gehien ikusten ditugunak hauek izaten dira: gorrirasunak, hau da, dermatitis hemorreikoa eta nerbioengatik, soriasis. Gainera, 40 urteko emakumeetan akne arraro bat ikusten hasi gara. Gaztetan ere arazo asko daude, lehen baino askoz gehiago. Eguzkiak kalte handiak ekartzen dizkigu ez dugulako arretaz eta kontu handiz hartzen. Ikertzaile batzuren ustez, 10 urtera oso arazo larriak izango ditugu.

— Eta mantxak?

— Gauza askorengatik izan daitezke, arazo hormonalengatik edo pastilak eta botikak hartzeagatik. Beste batzutan izerdiak ere eragiten du. Izerdiak gatza du eta eguzkiak puntu hoietan askoz ere gehiago erretzen du, hor izaten dira gorrirasunak eta mantxak.

— **“Pertsonaren barne arazo eta gaixoak azalean igartzen dira”**



# Sokorristak: jendeari laguntzeko

**Bero handiak egiten dituenean, bainu bat baino gauza hoberik? Gutxi seguruen. Arrasaten, nork ez du toaila galtzarpean hartu, bainujantzia eta txankletak jantzi eta Musakolako Kiroldagirako bidea egin? Hara iritsi, toaila belar gainean zabaldu, gainean etzan eta berotu-kiskaldu erdibide horretan ur freskagarrira. Gozada galanta, kontuz ibili ez ezkeroratu txar bihur daitekeena; horrelakoetan han izango dira sokorrista edo sorosleak.**

## Boluntario lehen eta orain

**M**usakolako Kiroldegian sei soroslek egiten dute lan. Hiru AUKEAK kontratatuta daude, jendea uretan behar bezala ibil dadin zaintzeko eta beharra izanez gero, itotzen ari direnak uretatik ateratzeko; beste hiruak Gurutze Gorriko boluntarioak dira, lehen laguntzak eskaintzeko prestatutako gazteak. Normalean, goizez, 8.30etatik 2.30etara, uretako sorosle bat eta Gurutze Gorriko boluntario bat egoten dira; arratsaldean, berriz, 2.30etatik 8ak aldera arte, bi eta bi.

Iñaki Lizarraldeak bukatu berri du soldakuska, San Prudentzioko Gurutze Gorrian. Oporrei begira, ez zuen kanpora joateko asmorik eta beraz, primeran etorri zitzaion kiroldegitik deitu izana, ea udara sorosle lana

eginez igarilekuan pasatu nahi zuen galdetuz. "Hemen egondako jendearekin hitz egin nuen eta esan zidaten ez zela plan txarra, igarilekuan ondo egongo nintzela. Egia

esan, ez dago gaizki, nahiz eta askotan, goizetan batez ere, aspergarria izan. Arratsaldetan beti jende gehiago etortzen da eta kontu gehiago jarri behar izaten dugu

geure lanean, zerbait gertatzen ote den begira denbora guztian. Hala eta guztiz ere, norberak bainu bat hartzeko astia ere izaten dugu.

Orain artekoaz ezin izango naiz kexatu, haurren ebaki txikiak besterik ez ditugu izan eta, ea hori baino gehiago ez den gertatzen!"

## Orain arte beharrik ez

**I**ñakik ez du sekula pizina nara salto egin behar izan inor ateratzeko, eta aurtentzen hori egin beharrik espero ez duen arren, beharra izanez gero duda barik salto egingo lukeela aitortzen du. "Lan hori uretako sorosleari dago, Gurutze Gorrikooi lehen laguntzak ematea dago, baina berak ezingo balu, nik egin beharko nuke. Sekula ez dut probatu ere egin, baina ziur naiz norbait uretatik ateratzeko gai izango nintzatekeela; teoria behintzat ondo baino hobeto ikasita daukat. Gainera salto egitea ez da egin daitekeen gauza bakarra, esate baterako norbaitek zaintzaren bat edo badu eta lasai



Gurutze Gorrikoen lana normalean uretatik kanpo izaten da, baina bada ez bada pizina inguruan ibiltzen dira.



badago, flotagailua jaurtitzea nahikoa izan daiteke”.

### Prebentzioa

**G**aitza sortzen denean ahalegin gehienak gaitza sendatzen egin behar dira, eta askotan alperrikoak izaten dira; gauzak horrela, beti esan ohi da gaitzaren sendabide onena gaitzik ez izatea dela, hitz batean esanda, prebentzioa. Igarilekuan ere, hitz horrek esanahi handia du eta askotan, ezer gerta ez dadin, ezinbestekoa da aurrez beharrezko diren neurriak hartzea. “Gure aldeik ahalegin guztiak egiten ditugu ezer gerta ez dadin –dio Iñakik–, baina jendeak ere, asko egin dezake. Gainera, kontuan hartu behar da azkenean kaltea gehienbat eurentzat dela, pizinararen hartu eta oinarritzko neurriak hartzen ez dituen jendearentzat. Gu hor izango gara egun osoan, jendearen aurrean, ondo ikus gaitzaten, baina jendeak ere lagundu egin behar du”.

Iñakik esandakoaren arabera, badirudi azkenaldian jendeak oinarritzko neurriak errespetatzen dituela, digestioa edo eguzkia hartzerakoan; igerilekuan ibiltzerakoan, ordea, ez dago hainbesteko errespeturik. Horregatik entzuten da hainbestetan sorosleen txil-bituaren soinua. “Normala da txil-bitua erabiltzea, bestela sorosleok egun guztia oihuka ibili eta ahots barik



Sokorristen eginbeharrak garrantzitsuena ezer gerta ez dadin zelatan egotea.

geldituko ginateke. Jendea aguadillak egiten edo umeak jende gehien dabilen tokian saltoka ikusten ditugunean erabiltzen dugu txil-bitua... jolasean baina gaizki dabiltzanean. Benetan itotzen edo

plantak egiten ari denaren artean nabaritutako nukeen? Bai horixe, oso desberdin portatzen da benetan larrialdian dagoena, bien helburua atentzioa deitzea da, baina ez dute berdin egiten”.

Lehorreko soroslea da Iñaki, uretako izaterik nahi ez duena, baina beharra izan ezker bihurtuko litzateke, Musakolako kiroldegian lan horretan diharduten guztiak bezala.

## Igerilekuan...

- Eguzkia hartzen egon eta uretara sartu behar baduzu ez zaitetz kolpera sartu, ura oso hotza dago eta. Lehenik hartu dutxa ur beroaz, gero pasatu kanpoko dutxatik eta azkenik sartu pizinaran. Gorputza poliki poliki aklimatatu egin behar da.
- Digestioa egin arte itxoitea komenidagarria da, digestioa egiterakoan gorputza beroago izaten denez, ur hotzetan sartzerakoan kaltegarri izan daitekeen kontrastea sortzen da eta.
- Larritasunean egonez gero, lasaitasun apur batez atentzioa deitzen saiatu.
- Insolaziorik ez hartzeko, onena burua zerbaitekin estaltzea da eta eguzkia hartzeko ez ahaztu krema gitea.
- Jendea dagoen tokian ez zaitetz saltoka edo aguadillak egiten ibili.
- Sorosleek esandakoari kasu egin.

**Basabe  
jatetxea**

### Menu eta afariak Boda eta banketeak

Industrialdea  
**ARETXABALETA**  
Tfnoak: 79 91 84  
77 07 94

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M  
ARENAZA**


Bizkaia, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07



# PODIUMA

## BEÑAT ZABALA

### Igeriketan estatuko bigarren



**O**rain bi aste Ceutan burututako Estatuko Aletadun Igeriketa Txapelketan, Beñat Zabalak lau probetan parte hartu zuen eta hirutan bigarren postua eskuratu. Estatu mailako txapelketa batean zilarrezko hiru domina lortzea ez da txantxetako gauza, aurrez sakrifizio ugari eskatzen duena. "Egunero bi ordu t'erdiko entrenamendua egiten dut. Batzutan gustora joaten naiz, baina beste batzutan, entrenamendura nekatuta iristen naizenean, entrenatzailea ezin izaten dut ikusi ere egin; beno, normala denez, berari ere gertatzen zaio halakorik. Egunero igeriketari bi ordu t'erdia eskaini behar izana oporretan ordaindu behar, liburuekin gora eta behera. Ikasturtean zehar biak egiteko denbora ateratzea ez da erraza".

Beñatek 17 urte dauzka eta igeri egiten orain bi urte hasi zen. Datorren denboraldian senior mailara pasatuko da eta zaila ikusten du kategoria berrian zerbait egin ahal izatea. "Oso jende bateranoa dago senior mailan, marka izugarri onak dauzkana eta horien aurka zerbait egitea gatxa izango da. Dena dela, ikusi egin behar aurrerantzean zer gertatzen den, oraingoz behintzat ondo joan zait".

Orain artekoa ondo baino hobeto

joan zaio bai, Beñati, nahiz eta Ceutan aurkitu dituen baldintzak egokienak ez izan. "Aurten Estatuko Txapelketako antolakuntza txarra izan da eta gainera han egiten zuen bero itogarria kontuan hartzekoa dela uste dut. Pizina, berriz, zeharo desegokia honelako txapelketa batetarako, ur gaziaz beteta eta gainera 25 metrokoa. Ondorioz, bira gehiago eta bira egiterakoan gelditu egin behar eta erritmoa galdu".

Hiru bigarren postu hasieran esan bezala, eta hiruetan aurrean igerilari bera, murtziar bat, pizina barruan etsai gogorra baina kanpoan lagun ona. "Denetarik dago, kataluniarrak esate baterako ez dira atseginegiak, baina murtziar hau tipo jatorra da. Probetariko bat 20 ehuneneko diferentziaz irabazi zidan bakarrik, eta berak biontzat urrezko domina eskatu nahi zuen. Podiumaren gainera igotzeko eta lasai egoteko esan nion".

#### ◆ Urain bigarren Mutrikun

Mutrikun burututako jubencil mailako txirriindulari lasterketan, Dorletako Ama txirriindulari taldeko Zigor Urainek bigarren postua lortu zuen, sprintean Jon Azkune aurreratu zitzaion eta Lasterketa berean Joxemi Elizburu eta Iker Zugasti hamargarren eta hamaikagarren izan ziren. Felix Zugasti, Aritz Altube, Antonio Prol eta Ruben Caberok ere helmugara iristea lortu zuten.

#### ◆ 24 ordu futbitoan

Bihar larunbata hamabietan hasi eta igandera arte II San Bartolome 24 orduko Futbito Txapelketa burutuko da Iturripeko kiroldegian. Izena eman duten talde guztiek bilera izango dute gaur arratsaldeko zazpitan, zozketa egiteko. Txapelketaren irabazleak garaikurra, bildots bat eta sorpresa izango ditu.


#### ◆ Arrasatearrak Errealera

Errealak datorren denboraldian gazteen taldeetan jokatzeko hiru arrasatear fitxatu ditu: Lazaro Olivenza 12 urtetako erdilaria, Urtzi Amiano 13 urtetako atezaina eta Argider Arana 14 urtetako atzelaria. Hiru futbolariak Mondrako taldeetan jokatu dute eta oso pozik daude Errealera joateagatik, nahiz eta orain arte Athletic zale amorratuak izan. Ikusi egin behar hemendik aurrera zeinen aldeko agertzen diren.

#### ◆ "Arrasateko hiria" futbol torneooa

Abuztuaren 29 eta 30ean "Arrasate hiria" futbol torneoaren kanporaketak jokatuko dira; torneoaren azken partidua, berriz, irailaren 2an. Aipatutako berria, Jose Luis Ezkurra Arrasateko taldearen presidente berriak eman zuen Mondraren asanblada orokorrean. Mondrarekin batera, torneoan Aloña Mendi, Aretxabaleta eta Eskoriatza taldeak izango dira.

# Berango



## Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE





## ARRASATEKO UDALA

# ARRASATEKO GAITZIZENAK BILTZEKO BEKA

Arrasateko Udalak, euskarari buruzko ikerketak bultzatu nahian gaitzizenek gure herrian duten zabalkundea eta erabilpen handia kontuan izanik, Arrasateko gaitzizenak bildu eta aztertzeke beka bat ematea erabaki du, ondoren azaltzen denaren arabera:

### OINARRIEN LABURPENA

- 1 Bekaren helburua Arrasateko gaitzizenak bildu eta aztertzea da.
- 2 Lana egiteko epea 12 hilabetekoa izango da, beka adjudikatzen den egunetik hasita.
- 3 Bekaren guztizko zenbatekoa 780.000 pezetakoa da. Beka ez da ikerketaren ordain-saria izango, berau egiteko laguntza baizik.
- 4 Beka norbanakoek nahiz horretarako osatutako taldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu honetan proiektuaren arduradun bat izendatu beharko da taldearen ordezkari izan dadin.
- 5 Eskatzaileek Euskal Filologian lizentziatuak izan beharko dute edo, bestela, azken urtean dabilzanak.
- 6 Aurreko baldintzak betetzen ez dituztenak ere izan litezke bekadun, epaimahaiaren eritziz curriculum vitae egoki eta nahiko frogatua edukiz gero.
- 7 Eskabideak curriculum vitaearekin batera, Udaleko Idazkaritza Nagusira bidali edo bertan aurkeztu beharko dira, Irailaren 11 baino lehen, kartazalean ondoko hau jarritz:

**Arrasateko Udala  
Euskara Batzordea  
Gaitzizenak biltzeko beka  
20.500 Arrasate (Gipuzkoa)**

Geroago sor litekeen korrespondentzia ere helbide horretara bidali beharko da.

- 8 Era beran, Irailaren 11 baino lehen eskatzaileek txosten bat aurkeztu beharko dute, bertan, ahalik eta zehatzen, lana nola burutuko luketen azaldu beharko dutelarik.
- 9 Eskegileek Epaimahaiaren aurrean defendatu beharko dute aurreko puntuan aipatutako txostena.

**Oinarriak eskuratu edo informazio gehiago nahi izanez gero,  
jo Arrasateko Udaleko Euskara Zerbitzura edo deitu 79 09 00 telefonora.**



# Ur taldea eta Shakespeare Monterronen

**U**ztaileko Monterroneko gau zoragarrien artean William Shakespearen komedia bat ikusgai, "Udako gau batetako ametsa" izeneko.

Ur taldea orain bost urte sortu zen Errenterian, 1979an jaiotako "Atelier" antzerki taldearen zatiketaren ondoren, hamar lagunez osatuta: 6 aktore, zuzendaria eta beste hiru teknikari.

Talde berriak, hasiera hasieratik izaera eta jokaera profesionala izan zuen eta orain arte egindako lanaren ondorioz, hiru lan sortu ditu: lehenik "Rémora", "Anti-héroes" ondoren eta "Udako gau batetako ametsa" azkenik. Ur osatzen duten hamar lagunek antzeztutako lanak arrakastatsuak izan direnez, Euskal Herrian ezezik estatua eta hegoameriketako zenbait herri eta hirietan ere izan dira.

"Udako gau batetako



ametsa" komedia antzezten hilabete pasatxo daramate, arrakasta osoz, Teruel eta Valentzian batez ere; taldekideak oso pozik agertu zaizkigu horregatik, uste baino askoz ere ikusle gehiago izan dituzte eta. Lana Shakespeareren komediarik ezagunenetarikoa da eta Ur

taldeak bertsiokontemporaneo eta bizia egiten du eta, sei lagun artean hamazortzi pertsonaiaren papera betetzen dute.

Antzezlanak izan duen harrera ona kontuan hartuta, Euskal Herrian erakutsi ondoren, Hegoamerikako Brasil eta Argentinara joango da Ur taldea.

## Ukranioko Metallurg taldea

Uztaileko Monterroneko gau zoragarrien bukaera emanez, datorren ostegunean, hilak 23, Ukraniako "Metallurg" folklore taldearen emanaldia ikusteko aukera izango da. Aipatutako dantza-taldea 1949. urtean sortu zen eta urtez-urte dantza ugari garatu ditu. Egingdako lana dela eta, 1979. urtean Sobiet Batasuna zeneko gobernuak kondekorazio bat eman zion eta talde herritar izendatu zuen.

Bere sorreratik hona "Metallurg" taldeak emanaldi ugari egin ditu hainbat herrialdetan eta arrakastarik aipagarrienak Alemania, Panama eta Hungria lortu ditu.

Desagertutako Sobiet Batasuneko errepublika guztietako dantzen interpretazioa egiten du "Metallurg"-ek. Sobiet Batasuneko jostun tradizionalak eskuk egingdakoak direnez, dantzez gain, aipagarriak da dantzariak janzten dituzten arropen edertasuna, arte-lana askoren esanetan.

Oraingoa taldeak Euskal Herrira egiten duen lehen bidai da, eta horregatik eta Sobiet Batasuna zeneko herrialdeetako dantzen erakustaldirik zabalena egiteko helburuaz, programa berezia prestatu dute. Ikusi nahi duenak, ostegun gauean izango du aukera Monterronen.

**PUB HAIZEA**



**ARRASATE PRESS**



**77 05 65**

## SLIMMING EMAKUMEEN GIMNASIOA

ESKAINITZA:

Gimnasia aktiboa/ Ikastaroak: aerobic-a, jazz-eko lehen urratsak, dantzako lehen urratsak, diskoa, erritmoa, gimnasia pasiboa eta masaia.

**Irakaskuntzako kalitatea eta kalitate profesionala**  
**Arreta pertsonalizatua.**

Deitu arratsalde 77 01 87 tfnora. ERGUIN 3 etxabea. ARRASATE



### ◆ Goikobaluk azken saioa

Datorren 25ean izango du Goikobaluk aurtengo azken emanaldia. Gorlizen izango da, Bizkaian kantatzen duten lehen aldia. Bestalde egun berean Radio 2-en Musikaste 92 barruko, Goikobaluren emanaldia bat izango da. Arrasaten ez dugu kantu hoiek entzuteko posibilitaterik izango, horretarako antena bat falta bait da, aspalditik musikazaleen eskatu arren.

Oporretatik bueltan Goikobaluk kantari gehiago beharko ditu. Interesatuta dauden guztiek Mikel Arregirekin jar daitezke harremanetan.

### ◆ Xabier Lizardi saria

Zarautz-ko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, XI. Xabier Lizardi Haur Ipuin Saria antolatatu du. Jatorriz euskaraz izatea da eskatzen dena, nazionalitatea kontutan hartu barik. Lehen saria 250.000 pezetakoa izango da.

Janak Zarauzko Udaletxea. Euskara Zerbitzua, Zarautz, helbidera bidali beharko dira. Informazio gehiago Zarauzko Udaletxean.

### ◆ Santi Altunaren erakusketa

Zabalik dago Kayua aretoan Santi Altuna Arrasateko pintorearen erakusketa. 30 kuadro ikus daitezke, gehienak paisaiak. Datorren 30era arte zabalik.

## Santi Altuna

### Kuadroak Zarautzen ikusgai

**Txikitatik pintatzen dabilen pintore arrasatear hau, Zarautzen izango duen erakusketa prestatzen ari da.**

— Zer motatako kuadroak pintatzen dituzu?

— Gehien erabiltzen dudana gaia paisaiak, mendia, itsasoa, kaia eta antzeko gauzak izaten dira. Eta beti, Arrasate, Gatzaga eta inguruko herrietatik hartutako irudiak. Baina guzti horietatik mendiak eta herriko paisaiak dira gehien erabiltzen ditudanak, bertan bizi naizenez eragin hori igarri egiten da.

— Noiztik pintatzen?

— Txikitatik. Beti izan dut pintatzeko zaletasun handia. Gainera denborak eta praktikak erraztasuna ematen du. Lehen egiten nituen kuadroen eta gaur egungoen artean badago desberdintasun bat, praktikarekin asko ikasten da eta.

— Eta paisaia horiek pintatzeko, zein da erabiltzen duzun teknika?

— Lehenik dibujoa egiten dut, hau da, ondo definitzen ditut paisai horren kontorno guztiak eta gero pintatzen hasten naiz. Baina nire berezitasuna aipatzeko, pintatzen hasi



baino lehen, gauza bakoitza ondo dibujatzen dudala esango nuke. Bestalde, batzutan paisai horren aurrean jartzen naiz, beste batzutan apunteak hartzen ditut eta gero etxean egiten dut kuadroa.

— Zenbat denbora behar izaten duzu kuadro bat egiteko?

— Gauza askoren arabera izaten da. Bakoitzaren tamainua, ezaugarri

desberdinak eta horretaz gain, egunak ere eragin handia izaten du. Nik behintzat, segun zelako eguna dudana, hobeto edo okerrago pintatzen dut.

— Koloreak zelako garrantzia du zuretzat?

— Handia baina ez handiena. Ni oso marrazkilaria ona naiz eta gero kolorearekin, beste matiz bat hartzen du kuadroak, beste itxura bat, erakargarriagoa beharbada.

— Jendearen aldetik zelako harrera ikusten da?

— Nik uste dut nire kuadroak gustokoak direla jendearentzat. Baina azken denboraldian askoz gutxiago saldu da. Jendeak ez du dirurik eta asko igartzen da. Etxe baten jartzen den azkenengo gauza kuadroa izaten da eta jendeak, beste gauza batzuen beharra du kuadroarena baino lehen, lujozko artikuloa da eta. Lehen gehiago saltzen zen.

— Zer dela eta erakusketa Zarautzen?

— Oporrak heldu direla eta, jende asko dabil Zarautzen eta ezagutzera emateko asko balio dute erakusketa horiek. Hemen ezagutzen naute eta kanpoko jendeak ezagutzera komeni da eta erakusketak asko laguntzen dute.


**"Ezagutzera emateko asko balio dute erakusketak"**

## ITSASKI

arrandegia

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
Arrasate 79 98 94



## ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak

Olarte kalea, 47 etxabea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



Aste gazte

"...Gazteak ginen, oso gazteak, eta oraindik bizitzari beldurrik hartzeko asirik ez genuen izan".

M. Garcia Cantarero,  
"¿Quedamos el domingo en el Ideal?"

Oporraldiak

• Oraindik ere egon daitezke plaza batzuk azken momenturarte mugitu ez zaretenontzat. 18 artetik gorakoentzat. Araba edo Bizkaia aldean. Inskripzio-kuota: 7.000 PTA.

• Kanpamendua Zuazako irlan (Araba). 15-17 urte bitartekoei zuzendua. Abuztuak 16-22. Ekintzak: piragismoa, bela, surfa eta eskalada. Prezioa: 10.000 PTA. Diputazioak antolatua.

Uda euskaraz

• Barnetegiak: Irailera arte aukera zabala duzu



edozein mailetan euskara-klaseak hartu eta giro euskaldunean bizitzeko. 2-4 aste-ko iraupeneko egonaldiak. Informa zaitez.

• AEK-bidaia: kirola Guaran, Euskal Pirinea oinez edo mountain-bikez, Sahara, Balearen belauntziz,... uztaila eta abuztuan.

Lanpostu-deialdiak

• Soraluzeko Udalak Animatzaile Soziokultural lanpostua betetzeko deialdia egin du. Lehiaketa-oposaketaren bidez. Baseak: 92-05-21eko GAOn. Epea: uztailak 29.

• Irungo Musika Fundazioak 3 irakasle kontratatze-ko deialdia egin du. Espezialitateak: bibolina eta klarineta. Baseak 92-05-14ko GAOn. Epea: uztailak 30.

Bekak

• Arrasateko gaitzizenak biltzeko beka. Eskatzaileak: Euskal Filologian lizentziatuak eta karrerako azken urteko ikasleak. Lana egiteko epea: 12 hilabete. Dirulaguntza: 780.000 PTA. Epea: irailak 11.

Lehiaketak

• Ipuin laburra XII. lehiaketa. Gai libre. Sari bakarra: 75.000 PTA. Epea: uztailak 30.

• Fray Luis de Leon poesia-lehiaketa. Gaztelaraz. Gai libre. Sariak: 500.000 eta 100.000 PTAK akzesita. Epea: uztailak 31.

• Federico Muelas Ipuin-Lehiaketa. Gaia: fantasia. Sariak: 250.000 eta 100.000 PTAK akzesita. Epea: uztailak 31.

• Iberoamerika, V. urteurrena, 3. argazki-lehiaketa. 2 modalitate: zuribeltzez eta diapositibak. Sariak: 150.000, 100.000 eta 50.000 PTA modalitate bakoitzeko. Epea: uztailak 31.

• Antoni Gonzalez de Lama XXII. poesia-lehiaketa. Gaztelaraz, gai libre. Sari bakarra: 500.000 PTA. Epea: abuztuak 31.

• "Ciutat de Cornellá" VIII. komiki-lehiaketa. 15-30 urte bitartekoei zuzendua. Gaztelaraz. Gai eta teknika libreak. Zuribeltzez nahiz koloretan. Formato bakarra DIN A-3. Sariak: 100.000, 75.000, 50.000 eta 25.000 PTAKo 3 akzesit. Epea: irailak 18.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,  
77 00 65



Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34  
ARRASATE Tfnoa: 79 97 86

OSORIK  
PUB

Ignazio Zuluaga, 4

Onduline



TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

FELIPE  
MADINA  
ZURAK

Zarugalde, 40 Arrasate 79 13 78



## ETXEBIZITZAK

- Etxea salgai. Terraza, garajea eta ganbara ditu. Tfnoak: 79 23 58 eta 77 00 91.
- Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da prezio onean. Tfnoa: 79 45 74.
- Bi oheko logela alokagai. Tfnoa: 79 07 73.
- Urte baterako pisua alokatu nahi dugu. Deiegin Getatik 10etara 77 02 42 tfnora.
- Munar auzoan pertsona bat behar da pisua osatzeko, bere gela edukiko luke. Pasatu eguardian edo gaeuz Munarreko Aragoi kaleko 4, 5. eskumatik.
- Uztailean buhardila alokatzen da oso merke Zarautzen. Tfnoa: 13 07 80.
- Etxebizitza berria salgai Zarugalden. Tfnoa: 945 - 25 89 03.
- Uztaila eta abuztuan Lloret de Mar-en etxebizitza alokatzeko dago. Tfnoa: 79 75 67.
- Zarautz. Etxebizitza alokatzen da. Sukaldea, 5 logela, 2 bainugela, egongela eta terraza. Erdikaldean eta hondartzatik 100 metrotara. Uztaila, abuztua eta iraila. Tfnoak: 79 23 97, 13 28 49 edo 69 15 52.
- Abuztuan etxebizitza alokatzen da Amaran (Donostia). Tfnoak: 79 66 01 eta 77 04 32.
- Donostian logela baten bila dabilen neska bat naiz. Datorren ikasturterako lekuri baldin baduzu dei eguerdian 79 97 69 tfnora.

ingelesa. Tfnoa: 79 90 08.

- Zientzietako klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 25 37.
- Fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak. Abuztuan ere bai. Tfnoa: 77 13 95.
- Uztailean marrazketa geometrikoko klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 52 93.
- Andra euskaldunak umeak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 37 68.
- Ekonomiako klase partikularrak emateko norbait behar dut. Tfnoa: 79 32 54. Iñaki.
- Gasteizen umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. Tfnoa: 72 39 73.
- Emakume euskalduna etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- OHOKo klase partikularrak uztaila eta irailean. Tfnoa: 79 34 58.
- Neska euskalduna jatetxe, ostatu eta tabernan lan egiteko prest. Uda osoan herrian egongo naiz. Tfnoa: 79 98 30.
- Zuzendaritzako Idazkaria lanerako eta etxean lanak ordenagailuz pasatzeko prest. Tfnoa: 79 97 30.
- Umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest neska. Tfnoa: 79 97 30.
- Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko neska bat behar da. Euskaraz badaki hobeto. Tfnoa: 79 89 32.
- Umeak zaintzeko arratsaldetarako neska euskalduna behar da. Tfnoa: 79 69 96.
- Neska edo emakume euskalduna behar da Gasteizen ume bat zaintzeko. Tfnoa: (945) 24 10 44.
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 79 58 80.
- Pertsona bat behar da gizon nagusi bat gaeuz zaintzeko. Dei egin 79 52 99 tfnora. Bego.

## SALEROSKETAK

- McKinley markako kanping-denda familiarra salgai. Tfnoa: 79 45 39. Edurnegatik galdetu.
- Klarinete berri-berria salgai. Tfnoa: 79 34 79.
- R-5 Turbo egoera onean salgai. Extra asko ditu eta oso prezio ona (800.000 PTA). Tfnoa: 79 03 67. Juan Ramon.
- Orbea Monkaio karrerista txirrindua salgai. Dei egin Belatik 9etara 79 23 56 tfnora.
- Ineska markako karru-denda oso egoera onean salgai. Dei egin gaudetan 79 94 26 tfnora.
- Udarako kotxea! Renault 4 salgai. Dei egin eguerdian 79 02 10 tfnora.
- Ardi-txakur kumeak ditut salgai. Tfnoa: 79 67 76 Raul.
- Razesa markako karreterako txirrindua salgai. Egoera onean dago eta oso prezio interesgarria du. Dei egin eguerdian 79 97 69 tfnora. Iban.
- Opel Corsa SS-X salgai. Berri-berria dago. 76.000 km ditu. Prezioa 380.000 PTA. Tfnoa: 79 55 75.
- Umeentzako seaska eta kalean ibiltzeko karroa salgai. Tfnoa: 79 77 79.

## DENETARIK

- Duela bi aste perladun urrezko belarritakoak galdutuen. Topatu badituzu dei egin gaueko 10etan 79 21 03 tfnora.
- Ordulari bat aurkitu nuen Zigarrolako jaietan. Galdutuenak dei dezala 79 26 17 tfnora.
- Joseba Vaileis. Zorionak! eta ea datorren urterako enfokatzeko ikasten duzun.
- ETBko txoriaren irudidun llaberoa galdutuen giltza mordo batekin. Aurkituko bazenute, dei egin 79 94 83 tfnora.

## LANA

- Zortzigarren mailara arte edo, euskarazko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 39 23.
- Esperientziadun neska abuztuan harategian edo urdaitegian lan egiteko prest. Dei egin 3ak aurretik 79 97 52 tfnora.
- Klase partikularrak uztailean. EGB, euskara eta



**ARRASATEN  
HILDAKOAK**

Maria Agirrebalzategi Galdos,  
uztailaren 9an. 81 urte.

Juana Heriz Aranzabal,  
uztailaren 9an. 60 urte.

Josefa Arostegi Aizpurua,  
uztailaren 9an. 73 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK  
DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA  
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE


Tfnoa: 77 08 15



# Zer nahiago?

## Ildefonso Gonzalez

### Izozki saltzailea



- Kukurutxoa ala helatua da gehien saltzen dena? Saldu denetik egiten da, batez ere eguraldiak laguntzen badu.
- Izozki zapore bat? Natazkoa da gehien gustatzen zaidana.
- Umeek ala nagusiek erosten dute gehiago? Ez dago desberdintasun handirik.
- Izozki berri asko daude aurten? Ez, uste dut bi edo daudela berriak.
- Janari hotzak ala beroak? Segun ze gauza biak komeni dira.
- Entsalada ala potajea? Potajea.
- Izozkien izen arraroena? Ez dakit, "yogur kiwi" beharbada.
- Izozkia jateko ordu onena? Bazkal ostean.
- Eskozes-a ala kafe hutsa? Eskozes-a.
- Bainila ala natazko izozkia? Natazkoa.
- Ze egunetan saltzen da gehien? Eguraldi ona dagoenean, jende asko etortzen da piznara eta.
- Egardia kentzeko, zer? Tonika limoi-urarekin.
- Zerekin nahastuko zenuke izozkia? Whisky edo kafearekin.
- Postre bat? Natilak ditut gustokoenak.
- Sagar tarta ala tarta izoztua? Tarta izoztua.
- Edaria izotzarekin ala barik? Izotzarekin.
- Zapore bateko ala askotako izozkia? Niretzat batekoak, bestela ez diozu ezeren gustorik hartzen.
- Noiz ez zenuke jango izozkirik? Hotzarekin.
- Hondartza ala pizgina? Berdin zait bata edo bestea.
- Eguzkia hartu ala igerian egin? Igerian egin.


# Bertsotan

## Eguraldia

1  
Esan daiteke eguraldia aurten dela nahiko txarra sarri daukagu jantzi beharra euritarako txamarra neguan baino euri gehiago egiten du barra-barra uda hasera behintzat izan da aurten aldrebes samarra.

2  
Eguzki pixkat nahi zuenantzat aurten nahikoa ezbehar laino ugari ageri bait da zeru urrunean zehar ala ta guztiz horregatikan ez dugu egingo negar egiten duen eguraldiaz denok konformatu behar.

AGURTZANE INURRATEGI



## MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE

## IZAGIRRE barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE  
Tfnoa: 79 59 86





**U**ztaila, uztaren hila. Garai egokia sasoi baten hilabetei izena bolada horretako lanak ematen ziela gogora ekartzeko. Gaur egun baserrietan bedarreta da eguraldi

onarekin batera egiten hasten den lana, baina ez dira hain urruti ere hemen garia lantzen zuten garaiak. Erretratu hauek Auspaltz baserrian ateratakoak dira, eta garai hartarako bitxia bada ere, laneko atera zituzten. Bitxia, orduan erretratu makina gutxi izango zirelako, eta argazkiak jai egunetan eta dotore jantzita atera ohi zituztelako. Antza denez, Madrileko lehengusuak etorri zitzaizkien bisitan eta haiek kamara ekarri.

Goiko argazkian garijoten ageri dira Bolinagatarrak: Atzean, sardea gora jasota, **Paulo Bolinaga**. Paulok alboka eta dultzaina jotzen ei zituen. Eskumako andrakumea, **Josefa Garay**, Pauloren emaztea, izatez Makatzena baserrikoa. Bere alboan **Eugenio** eta **Agustin Bolinaga Garay**, astoaren albo banatan, eta ondoan **Maria Teresa Bolinaga Garay**, mutiko bien arreba.

Beheko argazkian idiekin eta lanean ikusten ditugu. Baina badago detailtxo bat atentziora ematen duena, edo bestela begiratu postearen atzekaldean dagoen mutikoa zertan ari den...

## LETE Toldoak

Kataide industrialdea, 14. pabifoa

- Arrasate: 79 23 83
- Bergara: 76 12 24
- Iurreta: (94) 681 76 19

## “PAL”

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tfnoa: 79 31 99


## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Planoen erreproduktzioa  
Offseta

Ferrerias, 23  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



# Gurutzegrama



### Horizontalak

1. Garanduak
8. Arrasateko kalea
9. Neurria
11. (Ald) Erne
12. (Ald) Kriptona
13. Kaltea jasan duena
15. Guraso berberen semeak elkarrekin
16. Europako Komunitatean
18. Azal zuriskako zuhaitzak

### Bertikalak

1. Medikamenduak
2. Lerroan
3. Zenbakia
4. Garo
5. Tipiak
6. (Ald) Ni
7. Haginkadaren onomatopeia
10. Metale preziatua
14. Tiratu hasieran
17. Kukuaren kontsonanteak



JUAN BAUTISTA AGORRIA



## ARRASATEKO UDALA

# EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKAK

Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeak urtero bezala dirulaguntzak eskaintzen dizkie 1991-92 ikasturtean euskara ikasten aritu diren arrasatearrei.

Eskaerak uztailaren 24a baino lehen aurkeztu behar dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Euskara Zerbitzura.





# Telebegi

Ekainaren 26an, San Juan jaietan eta Sebero Altuben, testimonio mingarri baten testigu izatea suertatu zitzaidan. Ez nuke jakingo eta jakinez gero ez nintzateke pertsona haren izena emateko kapaz izango, baina hala ere, berak esandakoak nire gogamenean txoko berezi bat sortu zidan eta hitz haien oihartzunak, laupabost taupada gogor eta azkarrak sortu zituen nire bihotzean.

ATBko San Juanetako programa aurrera zihoan. Nik, beste pertsona askoren antzera, Seberon zeuden hesi hori artean nire gorputza deskantzatzeko nuen. Lo orduak falta zitzaizkidan, juerga ugari, noski. Halere, nire alzean zegoen gizon haren hitzak argi entzun ahal izan nituen:

"¿No te parece un derroche todo este montaje de esos 'pringaos'? ¿Pero si ATB no la ve nadie!"

Kaka zaharra! Hitz hauek mindu egin ninduten! Egia esan, ez naiz pertsona aproposena ATBri lorak botatzeko baina... zer demontre! ATB miresten dut zeren arrasatearrona da eta arrasatearren enpeinuz jaiotzea lortu zuen eta orain bizirik dago. Gizon haren hitzek ez zuten erantzunik izan baina momentu hartan, Seberon, ekipo baten konpenetrazioa eta zuzeneko emisioaren urduritasuna eta emozioa besterik ez zen usaintzen, zoragarria zen, eta horregatik, agian kontsolamendu propio baten bila nengo-elako, gizon haren hitzek ez zutela justifikaziorik ulertu nahi izan nuen.

Gizon hura, etxera joan zenean, telebistako botoia sakatu eta *Tele 5ra* "entxufatuko" zen, edo nork daki, agian kuriositatez bakarrik, ATBra.

MAIDER EGÜÉS

## Erreportaiak

Asteartean 9.20etan

Beti bezala hiru gai aztertuko ditugu Erreportaiak saioan. Aldi honetan Eskoriatzako Eskola museo, AEDko udalekuak eta azkenik Udako auzolandegiak. Gai honi zuzendu diogu argazkia, baina ez interesgarriena delako, besteak ere badute bere inportantzia eta. Beraz ez ahaztu hiru gai hauen erreportaiak asteartean izango duzuela.

## Larrugorritan

Erreal eta Athletic zaleak izango ditugu estudioan.

Ostegunean 9.20etan

## Erreportaiak

Udalekuak Auzolandegiak Eskola museo

Ostirala 9.20etan.

## Txatxaran

Maidar bera izango da elkarrizketatua

Asteazkena 9.20etan

## Programazioa

20

### ASTELEHENA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Eguneko albisteak.  
9.20etan **Larrugorritan**. Erreal eta Athletic zaleen arteko eztabaida.  
9.50etan **Asteko Zinea**: Bonnie eta Clyde.

21

### ASTEARTEA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Arrasaten izan diren albisteak laburpena.  
9.20etan **Erreportaiak**: Eskoriatzako Eskola museo, AEDko udalekuak eta Udako auzolandegiak.  
9.50etan **Asteko Zinea**: Bonnie eta Clyde.

22

### ASTEAZKENA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**.  
9.20etan **Txatxaran**. Maidar bera izango da protagonista.  
9.50etan **Asteko Zinea**: Bonnie eta Clyde.

23

### OSTEGUNA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Albistegia.  
9.50etan **Asteko Zinea**: Bonnie eta Clyde.


24

### OSTIRALA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Informazio bakoitza bideo batekin erlazionatzen da.  
9.20etan **Asteko Zinea**: Bonnie eta Clyde.



# 92ko Uda 21aren Uda duzu Euskadin.



*Orain zure Renault 21ak, Aire Girotua edo  
pareko eskaintza, prezio berean.*

Renault 21aren gamak eskaintza pertsonalizatua eta ekipamendu zabaleko abantaila guztiei, aire girotua gehitzen zaie orain, edo pareko eskaintza bat bestela, edozein bertsioetan eta prezio berean.


Udaberritik udazkenera bidaiak dezazun, udako nekeak pasa gabe. Eta oraindik gauza freskoagoa nahi baduzu, zatoz Renault 21 Broker

Berriaren ekipamendu harrigarria ikustera.  
RENAULT 21. Heldu aukera honi.  
Ez airean utzi!

*Renault 21*

Hilabete bukoerara arteko promozioa, stock-ean dauden ibilgailuentzat.

Bizi ezazu:

  
**RENAULT**

**MECA, S.A.**  
Araba Etorbidea z/g. ARRASATE